

2. GAIA

1 P potentziako eta U tentsioko goritasun lanpara batek:

- $R = U/P$ balioidun erresistentzia dauka.
- $I = P^2/U$ korrontea xahutzen du.
- $R = U^2/P$ balioko erresistentzia dauka.
- $I = U/P$ korrontea xahutzen du.
- "b" eta "d" erantzunak zuzenak dira.

2 " L " autoindukzio bati lotutako " w " energia hauxe da:

- $w = L \cdot i^2$ J
- $w = \Phi \cdot i$ J
- $w = \Phi^2/L$ J
- "a", "b" eta "c" erantzunak okerrak dira.
- "a", "b" eta "c" erantzunak zuzenak dira.

3 Seriean lotutako bi kondentsadoreen kapazitate baliokidea:


- Bietatik handiena dena baino, txikiago da beti.
- Bietatik txikiena dena baino, txikiago da.
- Bietatik handiena dena baino, handiagoa izan daiteke.
- Bietatik txikiena dena baino, handiagoa izan daiteke.
- Handiena eta txikienaren arteko bitarteko balioa du beti.

4 Tentsio iturri ideal batean, eta korronte iturri ideal batean beteko da:

- Elementu ez linealak direla.
- Ezin dira paraleloan elkartu.
- Seriean elkartu daitezke.
- Aurreko erantzunak okerrak dira.
- "b" eta "c" erantzunak zuzenak dira.

5 Irudiko zirkuituan autoindukzio guztiak berdinak dira " L " autoindukzio koefizientearekin. Baiezta daiteke:

- Etengailu irekiarekin, autoindukzio baliokideak " L_{bal} " hauxe balio du: $L_{bal} = L$ H
- Etengailu itxiarekin, autoindukzio baliokideak " L_{bal} " hauxe balio du: $L_{bal} = L$ H
- Autoindukzio bakoitzean fluxuak $\Phi = \frac{1}{2} L \cdot I$ Wb balio duela.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- "a" eta "b" erantzunak baino ez dira zuzenak.



6 Hurrengo baieztapenak egia edo gezurra diren adierazi:

- | | |
|--|-----|
| a) Tentsioa, korrontea, eta potentzia zirkuituetako parametroak dira. | E G |
| b) Korronte zuzenean elementu barreiatzaileek potentzia metatzen dute. | E G |
| c) Goritasun lanparak, erresistentzia hutsak bezala har daitezke. | E G |
| d) Erresistentzia guztiak koloreen kodeaz definitzen dira. | E G |
| e) Kondentsadore baten karga metatuta duen energiaren mendekoa da. | E G |